

MAUS
EUSKARAZKO EDIZIOA



Gidoia eta irudiak: Art Spiegelman
Itzulpena, ingelesetik: Julen Gabiria
Astiberri Ediciones. Bilbao, 2022
Zuri-beltza. Azal biguna, hegalekin
296 orrialde. 16 x 23 cm. 24 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-18909-42-9

Abenduaren 1ean salgai

Maus, orain euskaraz

Heldu da unea: euskaraz argitaratuko dugu* Maus *komikiaren behin betiko edizioa,* The New Yorker *aldizkariaren arabera "komikiaren historiako lehendabiziko artelana" izan zena eta Pulitzer saria irabazi zuena

Maus nazien sarraski-esparruetatik bizirik irtendako judu poloniar baten biografia da. Gizon hori Vladek Spiegelman deitzen da, eta Art semeak kontatzen du haren historia; izan ere, semea komikigilea da, eta agerian utzi nahi du nolako jazarpen ikaragarria bizi izan zuten milioika pertsonak Hitlerren menpeko Europan, eta nolako ondorioak utzi zituen sufrimendu hark ondorengo belaunaldien eguneroko bizimoduetan.

Holokaustoari buruz aritzeko erabili izan diren ohiko moduetatik urrunduta, Art Spiegelman guztiz era berritzailean hurbiltzen da aipatutako gaira, eta, horretarako, bere familiaren esperien-

tzia kontatzen du, memoir grafikoaren forman, generoaren baliabide estilistiko eta narratibo tradizional guztiak erabiliz eta, aldi berean, baliabide berriak ere asmatuz. Lan honen erradikaltasun narratiboak mugarria ezarri zuen nobela grafikoaren unibertsoan, eta, ondorioz, Pulitzer saria lortu zuen: komiki bati emandako aurrenekoa eta bakarra.

"Guztiz ezinezkoa da *Maus* irakurtzeari uztea, ezta lotara joateko ere. Saguetako bi maitasunari buruz hizketan hasten direnean, hunkitu egiten zara; sufritzen dutenean, negar egiten duzu. Sufrimenduz, umorez eta eguneroko bizitzak jarritako oztopoz osatutako ipuintxo honetan murgiltzen zarenean, apurka-apurka harrapatu egiten zaitu Europa Ekialdeko familia honen hizkerak, eta gatibu hartzen zaitu kontakizunaren erritmo gozo eta hipnotikoak. Eta, *Maus* amaitzen duzunean, pena ematen dizu mundu magiko hori utzi behar izateak".

Umberto Eco

"Holokaustoari buruz inoiz idatzi den narraziorik hunkigarri eta arrakastatsuena".

The Wall Street Journal

"Garaipen apal, hunkigarri eta soila, ezin dena zehaztasunez deskribatu, eta ezin dena komikia ez den beste inolako eratan lortu".

The Washington Post

"Irudi txikiz kontatutako istorio epikoa".

The New York Times

"Artelana, eta basatiki hunkigarria".

The Boston Globe

Wikimedia Commons

Art Spiegelman 1948ko otsailaren 15ean jaio zen Stockholmen, baina ume-umetan joan zen Estatu Batuetara bizitzera, gurasoekin. Artea eta diseinua ikasi ondoren, 1966an Topps Gum Co. enpresan hasi zen lanean, eta han aritu zen ia hogei urtez. Beste hainbat produkturen artean, pegatina eta kromoetarako ilustrazioak egin zituen han, eta garai hartakoak dira, esate baterako, *Garbage Pail Kids* kromoetarako egindako ilustrazioak. Aldi berean, komiki undergroundak argitaratzen hasi zen, eta, hala, euskarri horren aukera espresiboak deskubrituz joan zen. 1975etik aurrera, San Frantziskon denboraldi bat igaro eta berriz ere New Yorkera itzuli ostean, zenbait agerkaritan lan egiten hasi zen: *The New York Times, Village Voice* eta *Playboy* komunikabideetan, besteak beste. Gero, irakasle aritu zen School of Visual Arts delakoan, eta, 1980an, bere emazte Françoise Moulyrekin batera, Raw aldizkaria sortu zuen, eta hor argitaratu zuen *Maus*. 1992an Pulitzer sari entzutetsua eman zioten obra honengatik.

Rego Park, New York. 1958 inguruan
Gogoan dut uda zela. Hamar edo hamaika urte nituen...
PATIORA HELTZEN DEN AZKENA, POTROXIMELA!
...patinatzen nenbilen Howie eta Steverekin...
...eta patina askatu zitzaidan.
AI!
EI! ITXOIN, LAGUNOK!
POTROXIMELA! KAR, KAR!
I-ITXOIDAZUE!
BUA, BUA!
Aita etxe parean zegoen, konponketetan...

ARTIE! ERDU HONA ETA EUTSI OHOLARI APUR BATEZ, MOZTU EGIN BEHAR DUT ETA.
BUA!
ZER ARI ZARA NEGARREZ, ARTIE? EUTSI HOBETOAGO OHOLARI.
E-ERORI, ETA LAGUNEK OSPA EGIN DUTE NI GABE.
Mozteari utzi zion.
LAGUNAK? ZURE LAGUNAK?
ASTEBETEZ SARTZEN BADIEZU GELA BATEAN, JATEKORIK GABE...
..ORDUAN JAKINGO DUZU ZER DIREN LAGUNAK!